

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Proiektua publiko orori zuzenduta dago; izan ere, esperientziak janaria eta narratiba uztartzen ditu, adin eta profil desberdinetarako modu eskuragarrian. Ez du eskatzen aurretiazko literatura-ezagutzarik, ez eta gastronomiarekiko interes berezirik ere: nahikoa da beste zerbait bizi nahi izatea janari on batez gozatzen den bitartean.

Hala ere, bereziki erakar ditzake plan originalak bilatzen dituzten pertsonak eta taldeak, jarduera desberdin bat partekatu nahi duten familiak eta bidaiaren aurretik eta ondoren markatzeko interesa duten turistak. Asmoa da edonork parte hartzea eta formatuaz gozatzea, adina kontuan hartu gabe.

Gure negozioa batez ere Gasteizko eta Arabako jendeari eskainita dago, baina Euskal Herrian eta Araba inguruan horrelako jatetxerik ez dagoenez inguru osoko jendeari eskaintzen diogu, EAE, Nafarroa, Errioxa...

Adin guztietako jendearentzako pentsatuta dago baina, noiz behinka agian helduentzako edo haurrentzako espezifikoki pentsatuta dauden tematikak prestatuko ditugu adibidez halloween-en.